

# EROSKI S.COOP.:

## EROSKI Natur ekodiseinatutako ontziekin



Eroski S. Coop.  
unai\_sardon@eroski.es  
946211211  
<https://www.eroski.es/>



**Jarduera:** Gure helburua da gizarteari ondasunak eta zerbitzuak eskaintzea, kontsumitzaileen bizi-kalitatea, osasuna eta ongizatea hobetzen dutenak, kalitate, informazio eta prezio baldintza onenetan, kontsumo jasagarria sustatzeko konpromisoarekin.



**Sektorea:** Txikizkako merkataritza



**Enplegatutako pertsonen kopurua:** 29806



**Lokalizazioa:** Barrio San Agustín, S/N, 48230 , Elorrio, Bizkaia

**ESTATU mailako berrikuntza INKREMENTALA****Zergaitik izango litzateke berrikuntza kasu praktiko bat?**

Eroski, gaur egun, ontzien ekodiseinuko berrikuntza-prozesu batean murgilduta dago; helburua da ingurumena gehiago zaintzen duten ontziak ekoiztea, jatorri berriztagarriko monomaterialak, % 100ean birziklagarriak, erabiltzea sustatuz eta plastikoaren erabilera minimizatuz. Horrela, ontziaren diseinuan ingurumen-ikuspegia txertatzeak kontsumitzaileei erosketa arduratsuagoa egitea errazten die, eta,aldi berean, erakundeak bultzatzen duen ekonomia zirkularraren eredua indartzen da.

**KASU PRAKTIKOARI BURUZKO INFORMAZIO ZEHATZA**

EROSKI banaketako enpresa kooperatiba bat da, eta gizarteari ondasunak eta zerbitzuak eskaintzea du helburu, zeinek kontsumitzaileen bizi-kalitatea, osasuna eta ongizatea hobetzen duten, kalitate, informazio eta prezio onenekin, betiere kontsumo jasangarriaren praktika sustatzeko konpromisoarekin.

Misio horrekin bat, 2018an EROSKIK «Osasunaren eta Iraunkortasunaren aldeko EROSKIren 10 konpromisoak» argitaratu zituen, non dozenaka lan-ildo jasotzen diren bezeroei erosketa arduratsua errazteko eta garapen jasangarriaren helburuak lortzen laguntzeko. Konpromiso horien artean zeuden, besteak beste, gaur egun dauden marka propioko ontzi guztien berrikuspen integrala egitea ingurumen-irizpideekin, % 100 birziklagarriak izan daitezen, eta erabilitako plastiko konbentzionalaren kopurua gutxienez % 20 murriztea.

Ildo horretan, EROSKI 2018tik ari da lanean EROSKIren marka propioen ontzien ekodiseinurako estrategia integral batean, eta 2025ean amaitzea espero du. Estrategia horren bidez, marka propioko 2000 produktu baino gehiago berrikusiko dira, hornikuntza-katean produktu eta ontzien 400 hornitzaile inguru barne, gehi plastikoaren ordezkotako materialen hornitzaile berriak. Horretarako, EROSKIKo talde bat, Jasangarritasun Saileko langileek eta marka propioen arduradunek osatua (30 pertsona inguru), kanpoko hornitzaile horiekin batera lan egiten du, betiere jasangarritasun-taldearen eta Basque Ecodesign Centerreko langileen laguntza teknikoarekin. Ildo horretan, EROSKIK ontzien ingurumen-analisirako tresna bat garatu du Basque Ecodesign Center-ekin batera, eta tresna horren bidez, ingurumen-adierazle batzuk kalkulatu daitezke, hala nola birziklagarritasuna, plastikoaren aztarna, itsasoko littering arriskua edo, azkenik, ontzi bakoitzaren ingurumen-aztarna orokorra.

Eroskik, orain arte, hobekuntzak egin ditu EROSKIren marka propioko 140 ontzitan, batez ere EROSKI Natur produktuen elikagaien lerroan eta freskoetan, EROSKIren beste produktu-lerro batzuen aldean, ingurumenarekiko konpromiso handiagoa baitute bezeroarekiko, esaterako, EROSKI Natur-en tomate erromantikoa eta kaki (biak 2020ko urtariletik daude). Bi kasuetan, plastikozko erretilu eta flowpack batetik ontzi berri baten diseinura igaro da: elementu eta material bakar batez osatuta dago, FSC® zizilua (bere jatorri jasangarria bermatu eta ziurtatzeko) duen eta % 100 birziklagarria den kartoiz egin.a

**Aurrekariak**

Urtero, ontzietako hondakin-kopuru handi bat botatzen da ingurumenera, tratamendu egokirik egin gabe. Hala, kalkuluen arabera, 5 eta 13 milioi tona plastiko amaitzen dira ozeanoetan, eta, hain zuzen ere, enbalajearen sektorea da hondakin plastikoen sortzaile nagusietako bat (Europar ekoiztiko tonen % 40 inguru bilgarrietarako dira, eta horietatik, plastikoaren eskariaren % 6 baino ez da material birziklatuaren eskaria).

**Erronka**

Hain zuzen ere, eta erakundeak kontsumo jasangarriaren praktika sustatzeko hartutako konpromisoarekin bat etorritik, 2018tik EROSKIK bere marka propioen ontzien % 100 ekodiseinatze zeharkako estrategia bat lantzen du, eta 2025ean arrakastaz amaitzea espero da. EROSKIren ontzien ekodiseinuak hainbat neurri biltzen ditu, besteak beste, birziklatzeko edo, funtsean, ingurumen-inpaktu txikia duten materialetan (batez ere, material berriztagarriak edo birziklatuak) oinarritutako ontzi berreraileekin erabileraren eta plastiko konbentzionalaren erabileraren minimizazioa.

**Ekintzak**

Ekodiseinuko proiektuak 3.000 erreferentzia baino gehiago eta 400 hornitzaile berrikustea dakar, 30 pertsonaz osatutako EROSKI barruko talde batekin eta Basque Ecodesign Center-en laguntza teknikoarekin elkarlanean. Ontzi bakoitza berrikusteko prozesu orokorrak honako ekintza hauek ditu:

- Prozesuari hasiera emateko, dagoen ontziratze-soluzioen inbentarioa egiten da, eta hornitzaile bakoitzaren datuak bilzen dira, ontzia osatzen duten elementuei, erabilitako materialei eta birziklagarritasunean eragina duten beste elementu batzuei buruzkoak.
- Datu horiek guztiak EROSKIK eta Basque Ecodesign Centerrek garatutako ontzien ingurumen-analisirako tresnarekin aztertzen dira. Tresna horren bidez, ingurumen-adierazle batzuk kalkulatu daitezke, hala nola birziklagarritasun teorikoa eta erreala, plastikoaren aztarna (gutzizkoa eta konbentzionala), karbonoaren aztarna, ingurumen-aztarna orokorra, edo, azkenik, itsasoko littering arriskua.
- Aztertutako ontzia hobetzeko proposamenak zehazten dira, lehen aipatutako adierazleak optimizatuz.
- Azkenik, eta proposatutako hobekuntza-proposamenak kontuan hartuta, ontziaren hornitzaileekin batera lan egiten da diseinu berri bat zehazteko. Diseinu hori tresnan ingurumen-adierazleak berriro kalkulatu eta fabrikazio- eta ontziratze-prozesu berria testatuz balioztatzen

da. Zenbait kasutan, hornitzaileekin lan hori burutzeko, kanpoko kolaboratzaileek (adibidez, ECOEMBES, Basque Ecodesign Center, etab.) prestakuntza-jarduerak eskaini dituzte ekodiseinuarekin lotutako hainbat gairi buruz.

## Lortutako emaitzak

Eroskik, orain arte, hobekuntzak egin ditu, gutxi gorabehera, EROSKIren marka propioko 140 ontzitan, batez ere EROSKI Natur produktuen elikagaien lerroan eta freskoetan. Proiektuaren emaitzak ikusita, ontzi erosoak, erabilerrazak eta ingurumena zaintzen dutenak lortu daitezke, plastikoaren erabilera erabat baztertuz eta jatorri berriztagarriko materialak eta % 100 birziklagarriak sustatuz.

EROSKI Natur-en tomate erromantikoaren eta kakiaren ontzietan egindako hobekuntzen kasu zehatzean (ontzi biak EROSKI y CAPRABOren mila saltoki baino gehiagotan merkaturatzen dira 2020tik), lortu diren emaitzek ontzi berrien erabilera kontuan hartzen dute: diseinu berriko ontziak, % 100 birziklagarriak, FSC ® zigorluko kartoizko elementu (erretilua eta estalkia) bakar batez osatuak. Plastikoaren erabilera erabat baztertu da, eta ontzi birziklagarri berri horiekin, urtean 4.538 kg plastiko eta 1.374 kg CO2 (kopuru baliokidea) gutxiago erabiltzen dira.

Etorkizunean, aurreikusten da enbalajeen ekodiseinuko jarduerak 2025etik aurrera ere irautea, betiere etengabeko hobekuntzaren ikuspegitik, legediak eskatzen dituen beharren, bezeroen itzaropenen edo teknologiak eta material berrien garapenak sartutako aukera tekniko berrien arabera.

## KASUAREN KATEGORIZAZIOA

### Berrikuntza-eremuak:

- Produktua: Ondasun fisikoak.

### Aukera arloak:

- 1 - Trantsizio energetiko/klimatikoa

**Cristina Rodriguez Domingo (EROSKIren jasagarritasun ataleko arduraduna)**

«Plastikoen kutsaduraren aurka borrokatzeko gure strategiaren barruan, 2025. urterako EROSKI gure ontzi guztien ekodiseinua egiteko konpromisoa daukagu, % 100 birziklagarriak izan daitezen, soberako ontziratzea desagertzeko eta material birziklatuen eta berriztagarrien erabilera sustatzeko»

**Francisco Javier Orellana Sanchez (produktu-lerroaren arduraduna)**

«EROSKIk produkturik onena eskaini nahi du, eta horregatik lan egiten dugu ekodisenuko programetan, EROSKI markako produktuek ingurumena ahalik eta gehiena zaindu dezaten»

### Innovation Index Score: ★★★★★

Lerrokatze estrategikoa: ★★★★★☆

Kreatibitatea: ★★☆☆★★

Kolaborazioa eta hibridazioa: ★★★★★★

Sistematizazioa: ★★★★★★

Eraginkortasuna emaitzetan: ★★★★★★

Efizientzia emaitzetan: ★★☆☆★★

Erreplikagarritasuna eta transferigarritasuna: ★★☆☆★★

★

Eragina: ★★★★★★

Aintzatespena: ★★☆☆★★